

Tartalo

LOGELA MULTIMEDIA



Antzezanaren izenburua: **Tartalo**. Bertsio originala: **Euskara**. Konpainia: **Logela Multimedia**. Iraupena: **45 min** Nori zuzendua: **3-7 urte bitarteko haurrei**.

Inplikaturako taldea

- **Logela Multimedia konpainia:** Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat antzerki zein dantza konpainia esanguratsuekin elkarlanean 20 urte dihardu. Publiko familiarri zuzenduriko laugarren ikuskizuna da hau, egindako lanen bideo-laginak www.logela.org webgunean ikusgai daude. Bideogintza, interakzioa eta musika lantzen dute. Tartalo antzezanaren zuzendari orokorra **Imanol Garaizabal** da.
- **Saioa Iribarren:** Tartalo antzezaneko aktoreen zuzendaria eta dramaturgia zuzendaria. Lecoq pedagogian formatua. Teatro fisikoan aditua askotariko lengoaien bidez: klown, maskarak, bufoiak... "Amatxik dixit" da zuzendutako bere azken lana.
- **Edorta Barrietabeña:** Gidoilaria eta testuen sortzailea. "YOKO" mundu mailako serie ezaguneko gidoilaria eta GARTXOT animaziozko pelikularen gidoilaria besteak beste.
- **Aktoreak:**
 - Gaizka Chamizo:** Klown teknika eta akrobaziak menperatzen dituen aktorea.
 - Eneritz Garcia:** Aktorea. Hainbat konpainiekin egiten du lan: Pikor ("Jauzi hirukoitza"...), P6 gazte konpainia, Play&kids...
 - Ander Garaizabal:** Aktore manipulatzailea, sinkronia eta objektuen interakzioa gauzatzen.

* Talde artistiko eta tekniko guztia dosierraren bukaeran zehazten da



Tartalo antzezlanari buruz

Istorioak bi geruza ditu, alde batetik Joxemiel (Barandiaran) pertsonaiaren abenturak eta bestetik Tartalo kondaira fantastikoa aldaera batzuekin. Bi geruzek bat egiten dute antzezlanean zehar modu dibertigarri eta koloretsuan.



Joxemiel txoko magiko baten inguruan dago, argi eta bideo instalazio batean. Bertatik kontaktuko ditu bere abenturak eta Tartaloren mitoa, betiere, ipuin tradizionalen beldurra sorrarazi dezaketen elementuak baztertuz eta umoreagatik ordezkatur.



Askotariko antzezpen-lengoiak erabiltzen dira: ahozkoa, keinua, mugimendua, klown, teatro fisikoa edota ipuin kontalarien tonu goxoa.



Logela Multimedia konpainiaren lengoia koska bat haratago daramagu. Joxemielek miniaturazko mundu organikoa sortuko du bere idazmahaietan, bideo bidez irudi horiek jaso eta eszenografiara proiektatuko dira. Modu honetan, irudiak zuzenean konposatuko dira.



Sinopsia

Joxemiel pertsonaiak, zuzenean kontatuko digu bere txoko magikotik, Tartalo gentilaren kondaira fantastiko hau.

Tartalo mendian bizi den artzain erraldoia da, begibakarra. Gazta egilea da eta berak gordetzen du hain estimatua den gaztaren sekretua. Herrian beldurra diote, gizakiak panpin bihurtzen omen dituelako. Egun batean, Matilde artzai ausartak, gazta ardien truke lortzeaz nekatuta, gaztaren sekretua zein den jakitera abiatuko da. Gauza harrigarriak gertatzen diren koba batera iritsiko da. Bertan Tartalo gentila bizi da. Matildek benetako Tartaloren izaera onbera ezagutuko du. Izan ere, Tartalo ez da mounstro bat, Tartalo ezberdina da.



Pertsonaiak

Matilde

“Aspaldi-aspaldiko denboretan... bazen artzain bat Matilde deitzen zena. Artaldearekin ibiltzen zen hara-hona, ardientzako larrerik onenen bila. Motots polit eta luze bat zuen, egunero orrazten eta zaintzen zuena.”

Hasieran Tartaloretikiko distantziak mantenduko ditu baina bere izaera ausartari esker, harreman sentibera sortuko da beraien artean. Keinu eta gorputz bidezko interpretazioa dira bere komunikatzeko baliabide nagusiak, ahozkotasuna baztertu gabe. Hasieratik umeen enpatia bereganatuko du.





Joxemiel

Ipuinak kontatzea maite ditu: “Istoria bat zenbat eta gehiago kontatu, orduan eta politagoa da!” Inguruko baserrietara istorioen bila joaten da, indusketak egiten ditu kobazuloetan... Argi, bideo eta soinu instalazio baten inguruan mugituko da, eta miniaturazko mundu bat osatuko du “idazmahai magikoa” deritzogun instalazioan. Miniaturazko mundu hau bideo kamera bidez pantaila nagusira proiektatuko da. Joxemiel (Barandairan) pertsonaiak zuzenean kontatuko du Tartalo mitoaren hari nagusia, eta ikertzaile ezagun honen alderdi arkeologikoa eta abenturazalea azpimarratuko da.

Tartalo

“Tartalo jentiletan ankerrena omen zen. Munstro bat! Baina ezberdina izatea munstroa izatea al da? Ez! Ezberdina izatea, ezberdina izatea da... eta Tartalo ezberdina zen” Tamainuz handia da, bihotzez ere bai, xamurra eta sentibera. Sorpresaz beteriko pertsonaia.



Aktoreen zuzendaritza eta antzezen tratamendua

Aktoreen zuzendaritza eta dramaturgia Saioa Iribarren zuzendariaren esku egon da. Saioa, Lecoq pedagogian formatua dago eta teatro fisikoan aditua da askotariko lengoaien bidez: klown, maskarak, bufoiak... testu bidezko antzerkian ere aritzen da. Aktoreen perfila ere antzezen tratamendu honi bideratuta dago. Aktore nagusiak Gaizka Chamizo eta Eneritz Garcia dira. Biek

klown teknikak eta akrobaziak menperatzen dituzten aktoreak dira eta antzezpen-lengoaia ezberdinak erabiliko dituzte. Bestetik, Ander Garaizabal, Logela multimediako kidea ere badago, aktore manipulazailerik gisa, sinkronia eta objektuen interakzioa gauzatzen.

Hezkuntza trataera

Bizitzaren garai honetan (3-7 urte) agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko antzezlan bat da. Aurreiritzien ondorioz, ezberdina dena baztertua izateko joera dago. Hori gertatzen zaio gure Tartalori. Antzezlanean dibertsitatea balorean jarriko da, gutariko bakoitza bitxia eta berezia baita.

Historian zehar, gure zaharrek ingurua eta natura ulertu dituzte mitologian oinarrituz. Ezagutza eta sinismen hauek belaunaldiz-belaunaldi hazten joan dira. Aberastasun hau gure 3-7 urte arteko haurrengana hurbildu nahi dugu.

Testuen sorkuntza

Edorta Barruetabeña gidoilariak sortu ditu testuak. Helarazi nahi diren baloreak modurik egokienean egiteko ardura hartu du, zeregin horretan aditua baita, "Yoko" mundu mailako serie ezagunean horretan dihardu egun esaterako. Bere lan batzuk:



Argiztapena

Argiztapenak garrantzia handia du, hura baita pantailan proiektatuko diren irudien eta aktoreen ekintzen arteko zubia. Aktoreak eszenografian integratzeko gakoa da. Argiztapenak zuzenean sortu eta proiektatuko diren irudiekin lotura edukiko du. Argiztapenaren diseinua Fermin Izko teknikariaren esku egongo da.

Musika

Antzezlan guztiaren musika espreski sortua dago Logela Multimediako musikarien eskutik, publiko familiarrari zuzendutako azkenengo hiru antzezlanetan gertatu bezala ("Anaki", "Barbantxo" eta "Drag-e uraren bila"). Euskal musika tradizionala eta modernitatea uztartuko dituen hasierako kantu batetik abiatuta, lan eratorriak konposatu dira.

Talde artistikoa eta teknikoa

Egilea: Logela Multimedia

Zuzendaria: Imanol Garaizabal

Aktoreen zuzendaria: Saioa Iribarren

Gidoia eta testua: Edorta Barruetabeña

Aktoreak:

Gaizka Chamizo

Eneritz Garcia

Ander Garaizabal

Ekoizpena: Sonia Villamor

Banaketa: Logela Multimedia

Ekoizpen teknikoa: Karlos Gomez

Jantzi-diseinatzailea: Ainara Barrainkua

Argiztapena: Imanol Garaizabal

Atrezzoak: Ainara Barrainkua eta Ander Zaldua

Musika: Ander Garaizabal

Musika kolaborazioak: Naroa Gaintza / Alazne Blanco

Bideo ekoizpena: Basque Films & Imanol Garaizabal

Harremana eta kontratazioa



info@logela.org Mug: 610 787 771

Logela konpainiak ekoizpen digitalak zuzeneko ikuskizun bihurtzen ditu. Lan prozesu horretan disziplina anitzak lantzen ditu; animazioa, interakzioa, diseinua, musika...

Publiko familiarrari zuzendutako beste hiru antzezlan ekoiztu ditu azkenengo urteetan:

- "Drag-e uraren bila" <http://www.logela.org/portfolio/drag-e/>
- "Barbantxo 3D" <http://www.barbantxo.com>
- "Anaki" <http://www.logela.org/blog/portfolio/anaki/>

Ondorengo hiru ikuskizunek ere aipamena merezi dute, publiko familiarrari begira burutu baitira.

- "Splash" <http://www.logela.org/portfolio/splash/>
- "Ametsak marrazten" <https://vimeo.com/131748875>
- "Olatu zuria" <http://www.logela.org/blog/portfolio/olatu-zuria/>

19 urteko ibilbidean hauek dira burutu ditugun lan esanguratsuenak:

- "Codice" (2019) COT taldearekin batera dantza eta multimedia ikuskizuna
- "Lumen" (2018) Ikuskizuna. Timisoara 2021. Norbert Tako-k ekoiztua
- "Splash" (2018) mapping ikuskizun familiarra
- "Charge" (2018) dantza-multimedia. Kevin Finnan-ek zuzendua
- "Watermusic" (2017) Ikuskizuna. Aarhus 2017. Randers EgnsTeater-ek ekoiztua
- "Drag-e uraren bila" (2017) haurrei zuzenduriko antzezlan.
- "Ikus 16" (2016): Ikusentzunezko jaialdia
- "Nagare" (2015): COT taldearekin batera dantza eta multimedia ikuskizuna
- "Ametsak Marrazten (2015): Mapping ikuskizun familiarra.
- "Barbantxo" (2014): haurrei zuzenduriko antzezlan.
- "Olatu zuria" (2014): Mapping ikuskizuna
- "Divenire" (2013): Breakdance garaikidea eta multimedia ikuskizuna Circle of Trust.
- "Broken" (2013): Kevin Finnan-ek zuzendutako dantza eta multimedia ikuskizuna.
- "Atera doa" (2012): Dantza eta multimedia Kukai taldearekin batera.
- "The Voyage" (2012): Mapping eta dantza. "London 2012 festival Cultural Olympiad" barruan.
- "Next in line (2010): Asier Zabaletarekin dantza eta multimedia ikuskizuna
- "Scattered" (2009): Motion House taldearekin dantza eta multimedia ikuskizuna.
- "Anaki" (2009): Umeentzako antzerki multimedia.
- "Papiro...exia" (2008): Circle Of Trust taldearekin dantza eta multimedia ikuskizuna.
- "Taupadak" (2007): Dantza eta multimedia Kukai taldearekin batera.
- "Mokaua" (2006): Musika zuzenean, antzerkia eta multimedia.
- "Klonk" (2005): Breakdance eta ikuskizun multimedia.
- "Ohe handi bat" (2003): Ikuskizun multimedia
- "BreakOnStage 2001-2019" jaialdien ikusentzunezko lanak.
- "Link Concert" (2002): Bisualak, musika klasikoa eta elektronika.
- "Non demontre" (2000): Musika zuzenean, ikusentzunezkoak eta antzerkia.

